



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2018ko OTSAILAREN 27an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2018ko otsailaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Onintza Gorostidi Murua
Xabier Mugika Letamendia
Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2017ko abenduaren 12an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2018 ekitaldirako udal aurrekonturen espedientearen hasierako onespena, hala bada.**
- 5. Arizmendi baserriari loturik dauden terrenoetatik “Beco-soro” izeneko terrenoa segregatzeko baimena eskaera, azken hau Amalur etxeko terrenoetara eransteko, S.U.**
- 6. Hezkuntza sailak eginiko eskaera aztertu, hala bada..**
- 7. Euskadiko udalen elkarteari 2018 urteko ekarpena burutzea, hala bada.**
- 8. Alkizako Herri Eskolak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**
- 9. Tolosako hiltegi mankomunatuari 2017ko ekarpenaren onespena, hala bada.**
- 10. Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 11. XIV. Aiztondo Klasikoa “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ri 2017 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada.**
- 12. XV. Aiztondo Klasikoa “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ri 2018 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

13. Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.
14. Erniozaleak Kultur Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.
15. Belako publizitate eta komunikazioak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.
16. Beste batzuk.
17. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHENEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2017ko abenduaren 12ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

31/2017 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 21ekoa, Alkizako Udaleko Lehen Alkateordeari, Alkatearen funtzioak eskuordetzea, azken hau ezintasun egoeran dagoen bitartean, ebazten duena.

32/2017 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 26koa, X.U. jaunari Alkizako herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

32 bis/2017 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 19koa, A.S.S. jaunak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, ebazten duena.

33/2017 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 29koa, 2017/03 Kreditu aldaketa espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

01/2018 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 10ekoa, J.I. jaunaren pinuak garraiatzeko herri bidetik, Maderas Garmendiak jarritako fidantza bueltatzeko onespena ematea, ebazten duena.

02/2018 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 10ekoa, E.S. andreak jarritako fidantza bueltatzeko onespena ematea, ebazten duena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

03/2018 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 11koa, L.M.A. jaunari izkutuko obrak egiteagatik hauek geldiarazteko agindua, ebazten duena.

04/2018 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 11koa, A.C. abokatuia izendatzea Alkizako ordezkari bezala, 2018ko urtarrilaren 15ean dagoen kontziliazio egintzara, ebazten duena.

05/2018 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 17an, L. B. abokatuia izendatzea Alkizako letratu gisa, irazpenak 3/2018-1 autoan, ebazten duena.

06/2018 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 17an, M.C.E. andreari Don Juanena etxeko apartamentua erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

07/2018 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 23koa, Alkizako udaleko 2017 urteko bigarren goi-errolaren tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

08/2018 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 19koa, X.U.A. jaunak eskatutako obra baimena onestea, ebazten duena.

09/2018 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 24koa, M.C.E. andreari Alkizako herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena ematea, ebazten duena.

10/2018 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 31an, Hutsik dagoen Idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

11/2018 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 6koa, J.J.S. jaunaren pinuak garraiatzeko, herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

12/2018 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 13koa, Alkizako Basatxabal baserriko abeltzaintzako pabiloiaren teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena ematea, ebazten duena.

13/2018 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 20koa, 2018ko otsailaren 21ean izango den Tolosaldea Mankomunitateko batzarrean duen legezko ordezkari Josu Amilibia jaunarengan uztea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ARGITU	184,11
--------	--------



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ICETEC	157,30
MOVISTAR	80,89
CALPARSORO INDUSTRIAL	143,41
TOLOMENDI	152,50
NATURGAS	217,91
NATURGAS	76,37
NATURGAS	271,05
SOLRED	57,30
MOVISTAR	77,38
SEIKIN	102,85
ULAHI	562,47
IBERDROLA	44,90
NATURGAS	4,84
ACSOL	27,83
AUDAX	66,79
ACSOL	44,65
ACSOL	355,56
ACSOL	141,36
ACSOL	611,51
ACSOL	99,18
ACSOL	221,01
ACSOL	104,94
ACSOL	148,09
IZADI	152,94
ACSOL	15,02
BERRI LANTEGIA	143,37
CORREOS	2,42
DIMARPE	190,55
IBERDROLA	41,54
TOLOMENDI	155,25
KOMUNIKAZIOA BIZIAGOA	150,00
CALPARSORO INDUSTRIAL	100,03
BULEGOAK	895,61
MONTTE	621,94
JAVIER ESTEBAN	212,00
EUSKALTEL	74,16
SOLRED	96,80
ARGITU	144,73



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

COPY-TEC	11,97
MOVISTAR	75,66
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	276,63
MOVISTAR	80,89
ICETEC	235,95
QUISER	116,67
ACSOL	509,52
EBA ERKIZIA	1.934,34
IZADI	152,94
CORREOS	8,57
BIDATEK	943,80
ACSOL	97,90
ACSOL	101,65
ACSOL	42,80
ACSOL	185,76
ACSOL	80,90
ACSOL	332,69
ACSOL	116,74
ACSOL	20,11
ACSOL	57,74
ACSOL	532,88
BULEGOAK	145,66
KIMU AROZTEGIA	166,98
HARGOI	401,72
CARPINTERIA ATARI	1.739,16
LEFEBRE EL DERECHO	1.349,77
ROTULAN	18,15
NATURGAS	479,69
NATURGAS	119,46
NATURGAS	335,15
GALEMYS	6.824,18
URAK	1.548,80

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **25.995,59** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

2018 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUREN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2018 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Alkizako Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2018ko otsailaren 20an egindako txostenean dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Alkizako Udaleko 2018 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 627.942,51 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

SARRERAK	627.942,51€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	67.220,00
2. Kap. Zeharkako Zergak	50.000,00
3. Kap. Tasak eta bestelako zergak	52.515,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	306.658,00
5. Kap. Ondare Sarrerak	6.110,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak besterengan.	0,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

7. Kap. Kapital Transferentziak	145.439,51
8. Kap. Finantza aktiboak	0,00
9. Kap. Finantza Pasiboak	0,00

GASTUAK	627.942,51€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Pertsonal gastuak	200.560,00
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	155.870,00
3. Kap. Finantza gastuak	20,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	84.970,51
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak	186.522,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	0,00
8. Kap. Finantza aktiboak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	0,00

BIGARRENA.- 2018ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorraren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurtso eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

LAUGARRENA.- Idazkari-kontuhartzaileak 2018ko otsailaren 20ean egindako egonkortasun txostenean adierazitakoa onestea, non azaltzen den:

Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan Ogasun eta Finantza Departamenduak



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

argitaratutako jarraibideak (2017ko azaroaren 16an publikatua GAOan) dioena aplikatuz:

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko- finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2019-2021 epealdia aurreikusiko duena, eta jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru garren apartatua aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udaltzari.

Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazteko, gastuaren araua bete izana 2018ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

4. erregela. Kontuhartzailearen txostena.

Toki entitateko kontuhartzaileak txosten bat egin beharko du aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa.

Aipatutako txosten hori aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egin beharko da. Aurrekontuaren onarpena eta aldaketak direla-eta egindako txostenen konklusioetatik ez da derrigorrez ondorioztatuko plan ekonomiko-finantzario bat prestatzeko beharra. Baldin eta likidazioaren bidez egindako txostenaren ondorioek agerian uzten badute ez direla bete aurrekontu eginkortasunari eta finantza iraunkortasunari lotutako helburuak edo gastuaren araua, plan ekonomiko-finantzario bat prestatu eta onartu beharko da.

Hauek horrela, komunikazioa aurkezten zaio Udaltzarrari adieraziz:

- 2017ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak direla.
- 2018rako defizit eta zor helburuak betetzen direla.

Ikusten da Aurrekontu espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

BOSTGARREN PUNTUA

ARIZMENDI BASERRIARI LOTURIK DAUDEN TERRENOETATIK "BECOSORO" IZENEN TERRENOA SEGRAGATZEKO BAIMENA ESKAERA, AZKEN HAU AMALUR ETXEKO TERRENOETARA ERANSTEKO, S.U.

Ikusirik S.U. jaunak eginiko eskera, non Arizmendi baserriko loturiari



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

loturik dagoen “Beco-Soro” izeneko terrenoa segregatzeko baimena eskaera egiten duen, ondoren aipaturiko terrenoa Amalur etxeko terrenoetara eransteko.

Ikusirik Arizmendi baserriari loturik dauden terrenoen deskribapena ondorengo dela:

.../..

“Casería reconstruida, antes mitad septentrional de la llamada Arizmendi, conocida hoy con el nombre de Arizmendi-azpicoa, número once del barrio Azaldegui de Alquiza, de una área y dos centiáreas de terreno solar, que linda por Oriente y Poniente con sus antepuertas, por Mediodía con el solar de la mitad meridional de la casería Arizmendi, convertido en huerta de la casería Arizmendi-garaicoa edificada aparte, propia de Don Sabino Legarra, y por Norte con sus pertenecidos.

Sus terrenos pertenecidos:

-Un terreno sembradío llamado Anezaga, confina por Oriente y Norte con camino carretil, por Mediodía con pertenecidos de los caseríos Echesagasti y Peru y por Poniente con los de Azaldegui-echeverri; contiene veintisiete áreas y nueve centiáreas.

*-Otro terreno sembradío llamado **Beco-soroa**, confina por Norte y Oriente con pertenecidos de la otra media casa, hoy Arizmendi-garaicoa, por Mediodía con camino carretil público y por Poniente con pertenecidos del caserío Salmiñaga de Asteasu, contiene veinticuatro áreas, y sesenta y nueve centiáreas.*

-Otro terreno sembradío llamado Soro-aundia, de mejor calidad que los anteriores, con una pequeña parte de manzanal, confina por Oriente con pertenecidos de otra media casa, hoy Arizmendi-garaicoa, por Mediodía y Poniente con los del casero Garmendi y por Norte con los del caserío Echesagasti; contiene veintinueve áreas y quince centiáreas.

-La porción del terreno herbal con fresnos y castaños del paraje Iturri-aldea de dieciséis áreas y ochenta centiáreas de cabida, lindante por Este con la regata que divide los términos de Alquiza y Asteasu, por Sur con pertenecidos del caserío Echesagasti y por Oeste y Norte con los del caserío Zabala.

-El terreno robledal del paraje Larrunbideko-iturri-azpia, de dieciocho áreas y sesenta y dos centiáreas después de una segregación experimentada, linda por Este con terreno del caserío Urrozpe, por Sur con la regata llamada Arriaga, por Oeste con la porción que fue segregada y vencida a Don José Mújica y por Norte con terrenos del inquilino de la otra mitad de Arizmendi-



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

garaicoa.

-Otro terreno hayal en el mismo paraje y a la misma distancia de la casa, un poco mas al Oriente que el terreno anterior, confina por Oriente con una regatilla y pertenecidos del caserío Apaiztegui, por Mediodía con el peñón de Hernio, por Poniente con jurisdicción de la Universidad de Vidania y por Norte con terrenos de la casa concejil de Alquiza; contiene noventa y dos áreas, veintiséis centiáreas.

-Y otro terreno herbal llamado Mendiola, confina por Oriente con pertenecidos de Echabe y Garmendi, por Mediodía con los de Echesagasti, por Poniente con los de Echave y por Norte con los de Garmendi; contiene cincuenta y un áreas y diez centiáreas.

Inscrita en el Registro de la Propiedad de este partido al tomo 228, libro 9, folio 250, número 69 duplicado, inscripción 14ª.

Ikusirik S.U. jaunak terreno hauetatik "BECO-SOROA" terrenoa segregatu nahi duela, bere semea den I.U. jaunaren Amalur etxeko terrenoetara eransteke.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: S.U. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da Arizmendi baserriari loturik dagoen "BECO-SOROA" terrenoa segregatzeko baimena ematea, 2.469 metrotakoa. Finka matriza, etxearen okupazioa kontutan izan gabe, 23.502 m²-rekin geldituko direlarik.

BIGARRENA: Segregazioa burutu ondoren "BECO-SOROA" terrenoa Amalur Etxearen terrenoetara eransteke baimena ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri S.U. jaunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

HEZKUNTZA SAILAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak Alkizako udaletxeari eginiko eskaera, non azaltzen duen CEIP Alkiza HLHI unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzarako ikastetxe publikoaren eraikin osagarria den Barnetegia kontserbazio, mantentze-lan eta zaintzari buruzko eskaera luzatzen dion, ikastetxea birmoldatzeko lanak amaitzen diren bitartean.

Ikusirik, Hezkuntza sailak Alkizako udalari aurkeztzen diola Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Ondare eta kontratazio Zuzendariak eta Alkizako San Martin Parrokiko administratzaileak sinatutako errenta kontratua, 2017ko irailaren 1etik 2018ko ekainaren 30eko iraupena duena. Bertan Bostgarren baldintzan jasotzen da, " Maizterraren kontura izango dira alokatzen diren guneen hornitze-gastuak"

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2017ko irailaren 1etik 2018ko ekainaren 30arte, Barnetegian sortzen diren hornitze-gastuak Alkizako udalak bere gain hartzea. Horretarako, Alkizako parrokiak hilerio izan diren gastuen fakturak aurkeztu beharko ditu, Alkizako udaletxean.

BIGARRENA: Sortzen diren gastuak, 2018ko Udal aurrekontuetako 221.320.00.99 partidaren kontura ordaintzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEARI 2018 URTEKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik, Eudelek igorritako idatzia, non jakinarazten zaigun 2018ko kuotaren kobrantza egingo dutela, guztira 300,51 euro.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Eudelen urteko kuotaren ordainketa onestea, guztira 300,51 euro, 2018ko aurrekontuetako 419.922.00.01 partidaren kargura.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako Herri Eskolak eginiko diru-laguntza eskaera, non ondorengo dioen:

“Gaia: Diru-laguntza eskaera

Aurtengoa ikasturte berezia dudu, batik bat bi arrazoi nagusi hauengatik:

- *Hainbeste kostatako eskola berriaren lorpena gauzatu, planifikatu eta ESKOLA ZAHARRARI AGURRA egitea egokituko zaigulako.*
- *BASO ESKOLA gure jardunean pilotaje modura martxan jarri dugulako.*

Bi elementu hauek kontutan harturik programatu ditugu ikasturte honetan landuko ditugun gaiak:

1. *Hiruhilekoa: UNIBERTSOA*
2. *Hiruhilekoan: GURE ESKOLA ZAHARRA*
3. *Hiruhilekoan: GURE BASOAK*

Eta aurreko urtetan egin dugun modura Aduna-Berrobi-Alkiza arituko gara elkarlanean, ideia trukaketak aberastu egiten gaituelako.

Honetaz gain, GATAZKAK KUDEATZEKO egitasmoarekin aurrera jarraitzen dugu eta emaitzak hobetzen ari direla esan dezakegu:

- *Irakasleok GORPUTZALDIEN formazio saioetan parte hartzen dugu Berritzegunean*
- *Ikasleen jardunean sistematizaturik ditugu:*

1.GORPUTZALDI saioak

2.PACO CASCON psikopedagogoak erakutsitako talde dinamikak

Hau guztia aurrera eramateko, beti diogun moduan, moralki babestuak sentitzeaz gain, zuengandik jasotzen dugun diru-laguntza ere oso baliagarria zaigu. Horregatik, berriro ere zuengana jotzen dugu 2018rako eskaera luzatuz.

Eusko Jaurlaritzaren diru-murrizketak bere horretan jarraitzen dute eta eguneroko jarduna mantentzeko Alkizako Eskolak duela hiru ikasturte hartu zituen neurriak (igeriketa bi urtez behin egitea, bus-garraio gastuak ahalik eta gehien gutxitzea...)ere.

Erabaki hauen ondorioz eta guztion laguntzari esker Alkizako Eskolak bizirik eta indartsu lanean jarraitzen du, matrikulazioa mantenduz eta herriari bizia eskainiz. Tartean dago urtero udalak eskolari ematen dion laguntza anitza ere (lokalen erabilera, elkarlanerako prestutasuna, diru-laguntza,...)



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aurreko urteetan bezalaxe udalak eskolari ematen dion laguntza, bere ekintzak finantzatzeko izaten da eta jarraian doakizue diru hori zertan erabiltzen duguneko adibide batzuk:

- *Barnetegiko egonaldiak, otorduak, ekintzak...*
- *Igeriketa ikastaroa (bi urtez behin), ingelestegia....*
- *Egun osoko irteerak: Txiki-park, surf,...*
- *Proiektuen arabera sortzen diren ekintzak (beste eskolekin batera)*
- *Eta Urteko Planean aurreikusita dauden gainerako ekintzak.*

Eta eskolek herri txikien biziraupenean duten garrantzia azpimarratzen jarraitzen dugu, Udalaren aldetik ere sentipen hori sumatzen dugularik urtero. Aurten ere zuengana jotzen dugu, ahal duzuen neurrian, Udalak ere Eskolari diru-ekarpena egin diezaion eskatuz.

Gure eskaera hausnartuko duzuelakoan, eta nahi izanez gero, 2017 ekitaldiko gastu-sarreraren agiriak ikus ditzakezuelarik, erantzunaren zain geratzen gara.

Alkizako Herri eskolako komunitateak”

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Herri eskolari 1.000,00 eurotako diru-laguntza ematea, burutu behar dituzten ekintzak finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA.-1.000,00eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 2018 urteko Udal aurrekonturen 481.320.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Alkizako Herri eskolari jakinaraztea, **Udalak emandako diru-laguntza zuritu beharko duela, Udaletxe honetan izan dituen gastuen berri emanaz, dagozkion fakturak aurkeztuaz.**

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri Alkizako Herri Eskolari jakinaraztea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2018KO EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateak 2018ko otsailaren 2an egindako bilkuran, aho batez erabaki zutela, Mankomunitateko kide diren Udalek erakundearen langilearen soldata ordaindu ahal izateko, 2018urtean 40.000,00 eurotako ekarpena egin behar dutela. Alkizako Udalari 147,00 euro suposatzen diolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2018 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 147,00 euroko diru kopuruan. Ordainketa hau 2018ko Udal aurrekontuetako 421.431.00.01 partidaren kargura egingo da.

BIGARRENA: 147,00 euroko gastua onestea.

HAMARGARREN PUNTUA

OARGI MENDI ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hau da, 2018ko ekainaren 17an ospatuko den T3T(Tolosaldeko 3 Tontorrek)-eko IV. edizioaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

Ikusirik aipaturiko iraupen luzeko lasterketa honetan, parte-hartzaileak Alkizako herrian izango duela dagokion kontrola.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oargi Mendi Elkarteari 374 eurotako diru-laguntza ematea, datorren 2018ko ekainaren 17an ospaturko den T3T IV. edizioa, iraupen luzeko mendi lasterketaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

BIGARRENA: 374,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2018 urteko Udal aurrekontuetako 481.340.00.02 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Oargi Mendi Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuaz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oargi Mendi Elkarteari ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAMAIKAGARREN PUNTUA

XIV. AIZTONDO KLASIKOA “ PATXI ALKORTA MEMORIALA”-RI 2017 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XIV Klasikoa “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, emandako diru-laguntzen kitapena prestatu dela, Alkizako Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 1.537,88 euro izan zen eta kitapena egin ondoren jarri beharko zuena 1.764,83 euro, beraz 226,95 eurotako defizita egon dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak XIV. Klasikoak, “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, aurkezturiko kitapena onesten da.

HAMABIGARREN PUNTUA

XV. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ri 2018 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoko Batzordeak, XV. Aiztondo Klasikoaren “Patxi Alkorta memorialaren” aurrekontua bidali duela, guztira 19.000 eurotako dena, datorren martxoaren 4an ospatuko dena. Alkizako Udalari 1.461,80 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Ikusirik 2016ko Udal aurrekontuetako 481.340.00.03 partidan aurrekontu nahikoa aurrirakosten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikoko Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 1.461,80 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 1.461,80 eurotako gastua onestea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA

HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Xabier Mugica zinegotzia arratsaldeko 20.40 orduetan udalbatza honetatik irteten da.

Ikusirik Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkartek eginiko diru-laguntza eskaera.

Ikusirik 2018urteko udal aurrekontuetan 422.334.00.04 partidari aurrikusi dela diru kopuru nahikoa aipaturiko diru-laguntza esleitu eta ordaintzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozale elkarteari 500,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: 500,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2018 urteko Udal aurrekontuetako 422.334.00.04 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuaz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteari ematea.

HAMALAU GARREN PUNTUA

ERNIOZALEAK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Erniozaleak Kultur elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten zortzi herrien arteko ibilaldia 2018 urteko maiatzaren 13an egingo dela eta aurten Albiztur-tik abiatuko dela. Ibilaldia antolatzen ibilbideak txukuntzea eta margotzea beharrezkoa egin da. Horretarako Alkizako Udalarari 374,00-eurotako dirulaguntza eskaera egiten dute.

Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari 374,00.-eurotako dirulaguntza



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

onestea, 2018ko maiatzaren 13an egin den ibilaldia antolatzeko .

BIGARRENA.-374,00.-eurotako gastua onestea, 2018ko udal aurrekontuetako 481.340.00.04 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erniozaleak Kultur Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat aurkeztu beharko duela, Udalak emandako diru-laguntza zurutuaz.

LAUGARRENA.-Interesdunari akordio honen berri ematea.

HAMABOSTGARREN PUNTUA **BELAKO PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIOAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA** **ESKAERA AZTERTU, HAL BADA**

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2018 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariari diru-laguntza moduan harpidetza eskaera kontutan hartzea eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Alkizako Udala, 2018 urtean, Txantxangorri aldizkariaren harpidetza egitea.

BIGARENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

HAMASEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

16.1. BIDATEK ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKO AKORDIOAREN ONESPENA, ALKIZAKO BIDA TEKNOLOGIAREN BIDEZ EGINDAKO HERRIKO HONDAKIN URAK ARAZTEKO PLANTAN MANTENU LANAK AURRERA ERAMATEKO

Ikusirik, Bidatek eta Alkizako udalaren arteko akordioa, non Alkizako bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantan mantenu lanak aurrera eramateko, horretarako kontratu bat prestatu da, batzarkideek honen berri hartzen dutelarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA: Bidatek eta Alkizako udalaren arteko akordioaren onespena, non Alkizako bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantan mantenu lanak aurrera eramateko. Bere kostua 462,00 euro (BEZ-a kanpo) hilean izango da. Zerbitzua 36 hilabeteko iraupena izango du.

BIGARRENA: Udal Aurrekontuetan partida nahikoa aurrikustea.

HIRUGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko kontratua sina dezan.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Bidatek ingenieria ambiental, S.L. –ri ematea.

16.2.BENGOETXE BASERRIKO FATXADAN MARGOTZE LANAK EGITEKO BAIMENAREN LUZAPEN ESKAERA, J.A.

Ikusirik J.A. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen 2017ko uztailaren 11an 17/2017 Alkate ebazpen bidez Bengoetxe baserriko fatxadan margotze lanak egiteko baimena eman zitzaiola.

Ikusirik aipaturiko lanak oraindik egin ez dituela, baimenaren luzapen eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- J.A. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Bengoetxe baserriko fatxadan margotze lanak egiteko baimena 6 hilabetez luzatzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari eman.

HAMAZAZPIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

17.1.EUSKADIKO POLISARIO FRONTEAK DUEN ORDEZKARITZAK AURKEZTURIKO ADIERAZPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Euskadiko Polisario Fronteak duen ordezkariak aurkezten du ondorengo adierazpena:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

“SEADen 42. URTEURRENARI BURUZKO ERAKUNDE-ADIERAZPEN PROPOSAMENA

Egun gutxi barru, Saharar Herriak Saharar Estatuaren (SEAD) urteurrena ospatuko du. Hain zuzen ere, 42 urte beteko dira estatua eratzeko eta eraikitzeko faseak arrakastaz gainditu eta herriak askatasuna eta erabateko subiranotasuna lortu zuenetik.

Berrogeita bi urte hauetan, Saharar Herriak bere identitate nazionala finkatzea lortu du, ahaleginari eta batasun nazionalari esker. Saharar guztiak harro egoteko moduan daude, euren erakundeek egoki funtzionatzen baitute erbestearen baldintza gogorak eta baliabide-falta gorabehera.

Saharar Herria inoiz baino lotuago dago autodeterminaziorako eta independentziarako eskubide legitimoek, eta Marokoren aurka borrokan jarraituko du, potentzia okupatzaile hori baita Mendebaldeko Saharako errepresioaren eta baliabide naturalen espolioaren erantzule.

Hori horrela, Europako Auzitegiak aurkiepai bat emango du eta ziur asko legez kanpokotzat joko du EBk Marokorekin indarrean duen arrantza-akordioa, zeinaren bidez onura jasotzen baitu Europako arrantza-sektoreak eta, batik bat, Espainiakoak.

Erabaki horrek ondorioak izango ditu: alde batetik, justiziak baliorik gabe utzi ahal izango du sinatutako eta berretsitako tratatu bat, Nazio Batuen dotrinan oinarritutako irizpideak alegatuz; eta, bestetik, Fronte Polisarioarentzat izugarritzko garaipen politikoa izango da.

Horregatik guztiagatik,

ESKATZEN DUGU Nazio Batuek gehiago luzatu gabe eman diezaiotela behin betiko eta bidezko irtenbidea gatazka honi. Horretarako, Saharar Herriak autodeterminaziorako eskubidea baliatu beharko du erreferendum libre eta gardena eginez, amaitzeko dagoen deskolonizazio-prozesuari buru emateko.

BERRESTEN DUGU Fronte Polisarioa dela Saharar Herriaren ordezkari bakar eta legitimoa.

EXIJITZEN DUGU Marokok berehala aska ditzala preso politiko eta kontzientzia-presoa saharar guztiak, eta geldiaraz ditzala espetxeetan eta Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan gertatzen diren giza eskubideen urraketak.

ESKATZEN DUGU Mendebaldeko Saharan Erreferenduma Antolatzeko Nazio Batuen Misioak (MINURSO) lan handiagoa egin dezala giza eskubideak kontrolatzen eta zaintzen Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan.

ESKATZEN DUGU Espainiako Gobernuak estatus diplomatikoa eman diezaiola Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariari, Saharar Herriaren ordezkari



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

bakar eta legitimo gisa; aitor dezala Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa; eta beharrezko egitasmo politikoak abiaraz ditzala, Mendebaldeko Sahararako Nazio Batuen Bake Planean oinarrituta behin betiko eta bidezko irtenbidea lortzeko.

SALATZEN DUGU Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak espoliatzen dituela.

ESKATZEN DUGU Mendebaldeko Saharan diharduten enpresek errespetatuz ditzatela, alde batetik, baliabide naturalen gaineko etengabeko subiranotasuna eta, bestetik, lurralde okupatu bateko baliabide naturalen esplotazioari aplikatu behar zaizkion nazioarteko zuzenbide humanitarioaren arauak.

GOGORARAZTEN DUGU Marokok ez duela inolako subiranotasunik Mendebaldeko Sahararen gainean eta EBk ezin duela Marokorekin akordiorik sinatu Fronte POLISARIOaren baimenik gabe. Gainera, EB behartuta dago printzipio horren eta arau horien urraketak sortzen duen legez kontrako egoera oro salatzea.

IRAGARTZEN DUGU SEAD aldarrikatu zeneko 42. urteurrenaren harira euskal erakunde eta elkarteetako ordezkariak Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetara joango direla Saharar Herriaren borroka justuaren aldeko konpromisoari eusteko.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Polisario Fronteak Euskadin duen ordezkariak aurkezturiko erakunde –adierazpena bere osotasunean onestea.

17.2. EUDEL-ek AURKEZTURIKO 2018 KO MARTXOAREN 8RAKO ADIERAZPENAREN ONESPENA

Ondoren Eudel-ek aurkezturiko adierazpena irakurtzen da, non ondorengoa dioen:

“2018ko MARTXOAREN 8rako ADIERAZPENA

Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, non eta 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurten, 2018an, “Emakumeok planto. Nosotras paramos” leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartean duen inpaktua ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrak, adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egingo litzateke.

Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoizitako ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek egiten dituzten zeregin hauen orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren %56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren %74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituzten lan asko, enplegu prekarizatukoak dira edo lan-merkatuko ezkutuko ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako emakume ugari enplegatzen dira, eta beroriek jatorrizko inguruneetan beren haurrak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izan dituzte; hala, zaintza-kate globalak sortzen dira.

Eta egiten dituzten zereginez harantzagoko kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonen denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduera sozial egiteko, emakumeek jarduera horietan sartzeko zailtasunak izan arren.

Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumeei buruzko estereotipoak betikotzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopo ere bada, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da gizarteak aitortzea zaintza-lana ezinbestekoa dela bizitzaren iraunkortasunerako; zaintzen inguruko jendarte mailako antolakuntza berri bat babestu beharra dago zeregin hori beste modu batera hornitzeko, gizonen erantzunkidetasuna sustatu beharra dago, gizartea antolatzeko modu honen ondorioz erabakimen- eta botere-guneetan emakumeen talentuaren galera dagoela ikusarazi behar da, antolakuntza- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrokatu behar dira, eta bizitza pertsonalaren eta laneko bizitzaren kontziliazioa sustatuko duten zerbitzu publikoak indartu behar dira.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Egoera honetaz OHARTZEN DENEZ, Alkizako Udalak hitza ematen du

- Sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatuko dituela, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzeke guneak emakumeekin partekatzeke.
- Bere eskumenen alorrean lagunduko duela zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezzen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.
- Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatuko dituela.
- Balioen transmisioa azpimarratuko duela, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak susta daitezzen.

Azkenik, herritarrei dei egiten die martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Eudelek aurkezturiko 2018KO martxoaren 8rako adierazpena bere osotasunean onestea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.